

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPENA¹

Araua: 2006/49/EE ZUZENTARAUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA
KONTSEILUARENA, 2006ko ekainaren 14koa, Inbertsio-enpresen eta kreditu-entitateen kapital-
egokitzapenari buruzkoa (bat egitea)

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakunde (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta zerbitzu horren ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du inolako balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da : «*Directiva 2006/49/CE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 14 de junio de 2006, sobre la adecuación del capital de las empresas de inversión y las entidades de crédito*» (Diario Oficial de la Unión Europea, L 177 de 30/06/2006)

2006/49/EE ZUZENTARAUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA

2006ko ekainaren 14koa

Inbertsio-enpresen eta kreditu-entitateen kapital-egokitzapenari buruzkoa (bat egitea)

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNeko KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa Eratzeko Trataturak, eta bereziki, Tratatuaren 47. artikulua 2. paragrafoa aztertuta,

Batzordearen proposamena aztertuta,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena aztertuta ⁽¹⁾,

Europako Banku Zentralaren irizpena aztertuta ⁽²⁾,

Aldez aurretik Eskualdeetako Komiteari kontsulta eginda,

Tratatuaren 251. artikuluan ezarritako prozedurari jarraiki ⁽³⁾,

Honako hauek kontuan hartuta:

(1) Kontseiluaren 93/6/EEE Zuzentaraua, 1993ko martxoaren 15koa, inbertsio-enpresen eta kreditu-entitateen kapital-egokitzapenari buruzkoa ⁽⁴⁾, hainbat alditan aldatu da, eta funtsean aldatu ere. Beste hainbat aldaketa egin zaionez, arrazionaltasun eta argitasun handiagoa lortze aldera, zuzentarau bategina egitea komeni da.

(2) Finantza-tresnen merkatuei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004ko apirilaren 21eko 2004/39/EE Zuzentaruaren ⁽⁵⁾ helburuetako bat da jatorriko estatu kidean eskumena duten agintari eskudunek ikuskatutako eta baimendutako inbertsio-enpresei gainerako estatu kideetan askatasunez sukurtsalak sortzeko eta zerbitzuak eskaintzeko aukera eskaintzea. Zuzentarau horrek inbertsio-enpresen jarduera eta horien baimentzea erregulatzen dituzten arauak koordinatzen ditu.

(3) 2004/39/EE Zuzentaruak ez du inbertsio-enpresen fondo propioentzako maila bateraturik ezartzen, ez eta enpresa horien hasierako kapitalaren zenbatekoak ere; era berean, ez da sortu enpresa horiek dituzten arriskuak ikuskatzeko marko bateraturik ere.

(4) Baimenen eta zuhurtziazko ikuskapen-sistemen elkarren onarpena bermatzeko oinarritzkoa, ezinbestekoa eta nahikoa den harmonizazioa soilik egitea da komenigarria; horrela, barne-merkatu finantzarioaren esparruan elkarren aintzatespena lortzeko helburuaz koordinazio-arauak ezarri behar dira inbertsio-enpresen fondo propioen definizioari, hasierako kapitalaren zenbatekoei eta inbertsio-enpresen merkatu-arriskuen ikuskapena gauzatzeko guztiontzako eremu bat sortzeari dagokienez.

(5) Kontuan izanda estatu kideek bakarka ezin dituztela behar den moduan lortu zuzentaru honen helburuak –hots, inbertsio-enpresei eta kreditu-entitateei aplikagarri zaizkien egokitzapen-eskakizunak, horiek kalkulatzeko arauak eta horien zuhurtziazko ikuskapenerako arauak– eta, beraz, erkidego-mailan hobeto lor daitezkeela, Erkidegoak berak neurriak har ditzake, Tratatuaren 5. artikuluan bilduriko subsidiariotasun-printzipioaren arabera. Artikulu horretan adierazitako proportzionaltasun-printzipioari jarraiki, zuzentaru hau ez doa beharrezkoaz haraindi helburu horiek lortzeko.

(6) Hasierako kapitalen zenbatekoa baimendutako inbertsio-enpresak izango duen jarduera-motaren arabera zehaztea komeni da.

(7) Aurretik existitzen diren inbertsio-enpresek, baldintza jakin batzuetan, beren jarduerarekin jarraitzeko aukera izan behar dute, inbertsio-enpresa berriei ezarritako hasierako kapitalaren gutxieneko zenbatekoak betetzen ez badituzte ere.

(8) Estatu kideek zuzentaru honetan aurreikusitakoak baino zorrotzagoak diren arauak ezartzeko aukera izan behar dute.

(9) Barne-merkatuak funtzionamendu harmoniatsua izan dezan, beharrezkoak dira, arau juridikoez gain, elkarlan estu eta erregularra, eta estatu kideetako agintari eskudunen praktika arau-emaileen eta ikuskatze-praktiken konbergentzia era nabarian areagotzea.

(10) Batzordearen 1999ko maiatzaren 11ko Komunikazioak, «Finantza-zerbitzuetarako ekintza-esparrua aplikatzea: Ekintza-plana» izenekoak, finantza-zerbitzuen barne-merkatua gauzatzeko lortu behar diren zenbait helburu aipatzen ditu. 2000. urteko martxoaren 23an eta 24an Lisboan izandako Europako Kontseiluak helburutzat ezarri zuen 2005erako ekintza-plana gauzatzea. Fondo propioei buruzko xedapenen

¹ C 234 EO, 2005.9.22, 8. or.

² C 52 EO, 2005.3.2, 37. or.

³ Europako Parlamentuaren Irizpena, 2005eko irailaren 28koa (Egunkari Ofizialean oraindik argitaratu gabea), eta Kontseiluaren 2006ko ekainaren 7ko Erabakia.

⁴ L 141 EO, 1993.6.11, 1. or. Zuzentaru horren azken aldaketa Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2005/1/EE Zuzentaruak da (L 79 EO, 2005.3.24, 9. or).

⁵ L 145 EO, 2004.4.30, 1. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

- bertsio berria ekintza-planaren funtsezko elementua da
- «negoiazio-zorro» kontzeptua ezarri beharra dago,
- (11) Inbertsio enpresek haien negoziazio-zorroan kreditu-entitateek bere gain hartzen dituzten arrisku berdinak hartzen dituztenez, komenigarria da inbertsio-enpresei ere aplikagarri izatea Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006/48/EE Zuzentarauan, 2006ko ekainaren 14koan, kreditu-entitateak sortzeari eta horien jarduerari buruzkoan ⁽¹⁾, jasota dauden eta egoki gertatzen diren xedapenak.
 - (12) Inbertsio-enpresen edo kreditu-entitateen (aurrerantzean «entitateak») fondo propioak, etekin bolumena urria denean, etekinok estali ezin dituzten galerak xurgatzeko balia daitezke, horrela, entitateen iraupena bermatuz eta inbertsiogileak babestuz. Fondo propioak, halaber, entitateen kaudimena ebaluatzeko irizpide baliagarria dira eskumena duten agintarientzat, bai eta beste hainbat zuhurtziazko helburutarako ere. Gainera, entitateak euren artean zuzeneko lehiari aritzen dira barne-merkatuan. Horrela, bada, erkidegoko finantza-sistema indartzeko eta lehia-distortsioak ekiditeko asmoz, komenigarria da guztiontzako oinarritzko arauak ezartzea fondo propioei dagokienez.
 - (13) 12. puntuaren ondorioetarako, komenigarria da 2006/48/EE Zuzentarauan agertzen den fondo propioen definizioa oinarritzat baliatzea, bai eta merkatu-arriskuarekin lotutako kapital-eskakizunek duten irismen ezberdina kontuan izango duten arau osagarri espezifikoak ezartzea ere.
 - (14) Kreditu-entitateei dagokienez, 2000/12/EE Zuzentaruak ezartzen ditu arrisku mota ezberdinen ikuskapen eta kontrolerako irizpide komunak.
 - (15) Zentzu horretan, kapitalaren gutxieneko eskakizunei buruzko xedapenak entitateen ikuskaritzarako funtsezko teknikak bateratzen dituzten tresna espezifikoekin lotuta ulertu behar dira.
 - (16) Kreditu-entitateen merkatu-arriskuekin lotutako arauak sortzea beharrezkoa da, bai eta entitateen arriskuak ikuskatzeko esparru osagarri bat eskaintzea, besteak beste, merkatu-arriskuei, eta bereziki posizio-arriskuari, likidazio-arriskuari, aurkako partearekin lotutako arriskuari eta kanbio-tasaren arriskuari dagokienez.
 - (17) Negoiazio-helburua duten balore-posizioak eta entitateak dituen bestelako finantza-tresnetako posizioak, eta, nagusiki, merkatu-arriskuen menpe eta bezeroei eskaintzen zaizkien finantza-zerbitzu jakin batzuekin lotutako arriskuen menpe dauden posizioak batuko dituen
 - (18) Termino absolutu eta erlatiboetan garrantzi eskaseko negoziazio-zorroak dituzten entitateen zama administratiboa murrizteko helburuaz, entitateok 2006/48/EE Zuzentaraua aplikatzeko aukera izan behar dute, zuzentarau honen I. eta II. eranskinek ezartzen dituzten eskakizunen ordez.
 - (19) Kontuan izan behar da likidazio/entrega arriskuaren kontrolean, arrisku hori minimizatzeko gaitasuna eskaintzen duten sistemak badaudela.
 - (20) Edonola ere, entitateek zuzentarau honek entitateen jardueran kanbio-tasarekin lotutako arriskuak estaltzeari buruz ematen dituen xedapenak bete behar dituzte. Lotura estua duten dibisa-posizioen aurrean, kapital-eskakizun txikiagoak ezar litezke; betiere, lotura hori estatistikoki edota zuzenbidearen arabera lotura-indarra duten gobernu arteko akordio bidez konfirmatzen bada.
 - (21) Lehengaien deribatuen negoziatzaile baimenduentzako kapital-eskakizunak, egun 2004/39/EE Zuzentaruaren betekizunetatik libre daudenak barne, hala dagokionean berrikusi beharko dira salbuespen horren berrikuspenari dagokionez, aipatutako zuzentaruaren 65. artikuluko 3. paragrafoak dioenari jarraiki.
 - (22) Gasaren eta elektrizitatearen merkatuen liberalizazioa Erkidegoarentzat helburu garrantzitsua da, bai ikuspuntu ekonomikotik eta bai politikotik ere. Horregatik, merkatu horietako enpresa aktiboak aplikatu dakizkiekeen kapital-eskakizunek eta zuhurtziazko arauak neurrikoak izan behar dute eta liberalizazioaren helburuari ez diote oztopo bidegaberi ezarri behar. 21. puntuak aipatzen dituen berrikuspenak egitean bereziki, helburu hori izan behar da kontuan.
 - (23) Entitateen jarduera guztien interes-tasekin lotutako arriskuen ikuskapen eta kontrolerako barne sistemak egoteak berebiziko garrantzia du era horretako arriskuak minimizatzeko garaian. Hortaz, agintari eskudunek ikuskatutako sistema horiek.
 - (24) 2006/48/EE Zuzentaruak ez du bereziki merkatu-arriskuen menpe dauden jardueren arrisku nagusien ikuskapen eta kontrolerako arau komunik ezartzen, eta beraz, bidezkoa da arau horiek ezartzea.
 - (25) Arrisku operatiboa entitateek aurrean duten arrisku garrantzitsua da, eta horren arrisku-estaldurak fondo propioak eskatzen ditu. Ezinbestekoa da EBan dauden entitateen aniztasuna kontuan izatea, eta beraz ikuspegi alternatiboak eskaintzea.

¹ Ikus Egunkari Ofizial honen 1. orrialdea.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

- (26) 2006/48/EE Zuzentarauak kontsolidazio-printzipioa ezartzen du. Ez du arau komunik ezartzen nagusiki merkatu-arriskuen menpe dauden jarduerak gauzatzeko dituzten finantza-entitateen kontsolidazioari buruz.
- (27) Talde bateko entitateen kaudimen egokia bermatzeko, ezinbestekoa da gutxieneko kapital-eskakizunak aplikatzean, taldearen finantza-egoera kontsolidatua oinarritzat hartzea. Fondo propioak taldearen barruan era egokian banatzen direla eta, beharrezkoa denean, inbertsioak babesteko eskuragarri daudela bermatzeko, gutxieneko kapital-eskakizunak taldeko entitate bakoitzari aplikagarri izan behar zaizkio, baldin eta helburu hori beste inolabait lortzen ez bada.
- (28) 2006/48/EE Zuzentaruak ez zaie aplikatuko inbertsio-enpresak badituzten, baina kreditu-entitateerik ez duten taldeei. Inbertsio-enpresen oinarri kontsolidatuko ikuskapena egiteko esparru bateratu bat sortu behar da.
- (29) Entitateek bermatu behar dute haien barne-kapitala egokia dela kantitate, kalitate eta banaketan, enpresak jasaten dituen ala jasan ditzakeen arriskuak kontuan hartuta. Horrela, bada, entitateek barne-kapital egokia izateko eta berau mantentzeko estrategia eta prozesuak izan behar dituzte.
- (30) Agintari eskudunek entitateen fondo propioen egokitasuna aztertuko dute, enpresok jasan ditzaketan arriskuak kontuan hartuta.
- (31) Bankuen barne-merkatuaren funtzionamendua eraginkorra izateko, Europako Bankuen Ikuskatzaileen Komiteak zuzentarau honen aplikazio koherentearen eta Erkidego osoko ikuskapen-praktiken bateratzearen aldeko laguntza emango du. Era berean, egindako aurrerapenen berri eman beharko die urtero Erkidegoko instituzioei.
- (32) Barne-merkatua eraginkortasun handiagoz aritu dadin, ezinbestekoa da harmonizatutako Erkidegoko legeriaren xedapenen egikaritze eta aplikazioari dagokienez, bateratzea are handiagoa izatea.
- (33) Horrexegatik, eta estatu kide batean baino gehiagotan jardunean ari diren Erkidegoko entitateek, oraindik ere estatu kide bakoitzeko agintari eskudunei dagokien baimen- eta ikuskapen-erantzukizunen ondorioz, gehiegizko zama jasan ez dezaten bermatzeko, nahitaezkoa da agintari eskudunen arteko lankidetzeta nabarmen areagotzea. Testuinguru horretan, ikuskapen kontsolidatuaren erantzukizuna duen agintariaren papera indartu egin behar da.
- (34) Barne-merkatuak eraginkortasun handiagoa izan dezan eta Batasuneko herritarrek gardentasun maila egokiak izan ditzaten, beharrezkoa da agintari eskudunek zuzentarau honek agintzen duena nola aplikatu behar den publikoki azaltzea eta zabaltzea, konparaketa adierazgarri baterako bidea eskainiz.
- (35) Merkatu-diziplina areagotzeko eta entitateek beren merkatu-estrategia, arrisku-kontrola eta barne-kudeaketaren antolaketa hobetzera bultzatzeko asmoz, entitateek une bakoitzean egokia den informazio publikoa eman beharko dute.
- (36) Honako zuzentaru hau betearazteko beharrezkoak diren neurriak Kontseiluaren 1999/468/EE Erabakiak, 1999ko ekainaren 28koak, ezarritakoari jarraiki onartuko dira; erabaki horrek Batzordeari esleitutako betearazpen-eskumenak egikaritzeko prozedurak ezartzen ditu ⁽¹⁾.
- (37) Finantza-zerbitzuen esparruan legedia aplikatzeari buruzko 2002ko otsailaren 5eko Ebazpenean ⁽²⁾, Europako Parlamentuak eskatu zuen Batzordearen betearazpen-eskumenak ikuskatzeko lanetan Parlamentuak eta Kontseiluak pareko zeregina izan zezatela, horrela, Parlamentuak Tratatuaren 251. artikulua araberaren bitartez dituen legegintza-eskumenak isla daitezela. Batzordeko lehendakaria, egun hartako bertako bilkuran Parlamentuaren aurrean egindako adierazpen ospetsuan, eskaera horren alde agertu zen. 2002ko abenduaren 11n, Batzordeak 1999/468/EE Erabakirako zuzenketak proposatu zituen, eta ondoren, beste proposamen bat aurkeztu zuen 2004ko apirilaren 22an, aldaketa batzuk eginda. Parlamentuaren araberaren bitartez, proposamen horrek ez ditu bere legegintza-prerrogatibak bermatzen. Parlamentuaren iritziz, Parlamentuak eta Kontseiluak aukera izan behar dute Batzordeari egindako betearazpen-eskumenen esleipena epe jakin batean balioesteko. Ondorioz, Batzordeak betearazpen-neurriak hartzeko duen epe hori mugatzea komeni da.
- (38) Lehen zuzenketa-proiektua edo betearazpen-neurria helarazten denetik, Parlamentuak hiru hilabeteko epea izan behar du horiek aztertzeko eta horiei buruzko irizpena emateko. Hala ere, behar bezala arrazoitutako eta premiazko kasuetan, epealdi hori murrizteko aukera izan behar da. Parlamentuak epe horretan ebazpen bat onartzen badu, Batzordeak zuzenketa-proiektua edo ebazpen-neurriak berraztertu beharko ditu.
- (39) Merkatuetan nahasteak ekiditeko eta fondo propioen maila guztien jarraitutasuna bermatzeko, komenigarria da behin-behineko akordio zehatzak egitea.
- (40) Zuzentarau honek oinarritzeko eskubideak errespetatu eta Europar Batasunaren Oinarritzeko Eskubideen Gutunean zehazki jasotako

¹ L 184 EO, 1999.7.17, 23. or.

² C 284 EO, 2002.11.21, 115. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

printzipioak jasotzen ditu, Erkidegoko zuzenbidearen printzipio orokor gisa jaso ere.

- (41) Zuzentarau hau estatu kideko zuzenbide nazionalean sartzeko betebeharrari dagokionez, aurreko zuzentarauekiko funtsezko aldaketa bat dakarten xedapenetara mugatuko da. Aldaketarik gabeko xedapenak sartzeko betebeharra aurreko zuzentaraueetatik eratoritzen da.
- (42) Zuzentarau honek ez die eragingo zuzentarauek zuzenbide nazionalean jasotzeko epeei buruz VIII. Eranskinaren B zatian zehazten diren estatu kideen betebeharrari.

HONAKO ZUZENTARAU HAU ONARTU DUTE:

I. KAPITULUA

Xedea, aplikazio-eremua eta definizioak

1. Atala

Xedea eta aplikazio-eremua

1. Artikulua

1. Zuzentarau honek inbertsio-enpresei eta kreditu-entitateei aplika dakizkiekeen kapital-egokitze eskakizunak, horiek kalkulatzeko erregelak eta horien zuhurtziazko ikuskapenerako arauak ezartzen ditu Estatu kideek 3. artikuluan definitutako inbertsio-enpresa eta kreditu-entitateei aplikatuko dizkiete zuzentarau honetako xedapenak.

2. Estatu kideek betekizun osagarriak edo zorrotzagoak ezar diezazkiekete estatuon baimena jaso duten inbertsio-enpresa eta kreditu-entitateei.

2. Artikulua

1. Zuzentarau honetako 18., 20., 22.-32., 34. eta 39. artikuluetan xedatutakoari kalterik egin gabe, 2006/48/EE Zuzentaruaren 68.etik 73.era arteko artikulua inbertsio-enpresei aplikatuko zaizkie mutatis mutandi. 2006/48/EE Zuzentaruaren 70.etik 72.era arteko artikulua inbertsio-enpresei aplikatzean, estatu kide bateko kreditu-entitate matrize bati buruzko aipamen oro, estatu kide bateko inbertsio-enpresa matrize bati buruzko erreferentzia izango da; eta EBko kreditu-entitate matrize bati buruzko aipamen oro, EBko inbertsio-enpresa matrize bati buruzko erreferentzia.

Kreditu-entitate baten enpresa matrizea estatu kide bateko inbertsio-enpresa matrize bat denean, bakarrik inbertsio-enpresa matrize horrek bete beharko ditu 2006/48/EE Zuzentaruaren 71.etik 73.era arteko artikuluen arabera kontsolidatutako oinarriaren gaineko eskakizunak.

Inbertsio-enpresa baten enpresa matrizea estatu kide bateko kreditu-entitate matrize bat denean, bakarrik kreditu-entitate matrize horrek bete beharko ditu 2006/48/EE Zuzentaruaren 71.etik 73.era arteko

artikuluen arabera kontsolidatutako oinarriaren gaineko eskakizunak.

Balore-zorroa kudeatzeko sozietate finantzario baten filiala kreditu-entitate bat zein inbertsio-enpresa bat denean, balore-zorroa kudeatzeko sozietate finantzarioaren finantza-egoera kontsolidatuaren oinarrizko eskakizunak kreditu-entitateari izango zaizkio aplikagarri.

2. Lehen paragrafoan aipatutako taldeetako batean kreditu-entitateak ez dagoenean, 2006/48/EE Zuzentaruaren jasotakoa aplikatuko da ondokoa betez:

- a) kreditu-entitateei buruzko aipamenak inbertsio-enpresei buruzko aipamenak izango dira;
- b) 2006/48/EE Zuzentaruaren 125. artikuluan eta 140. artikuluko 2. paragrafoan zuzentarau horretako beste hainbat artikuluri egiten zaizkien aipamenak 2004/39/EE Zuzentaruari egindako aipamenak izango dira;
- c) 2006/48/EE Zuzentaruaren 39. artikuluan 3. paragrafoaren ondorioetarako, Europako Banku Batzordeari buruzko aipamenak Kontseiluari eta Batzordeari buruzko aipamenak izango dira;
- d) 2006/48/EE Zuzentaruaren 140. artikuluan lehen paragrafoa gorabehera, talde batean kreditu-entitateak ez dagoenean, artikuluan lehen esaldiaren ordean ondokoa aplikatuko da: «Inbertsio-enpresa batek, balore-zorroa kudeatzeko sozietate finantzario batek edo zorro-sozietate misto batek aseguru-etxea den enpresa filial bat edo gehiago kontrolatzen badu, agintari eskudunak eta aseguru-enpresak ikuska ditzaketan agintariak estuki arituko dira elkarlanean».

2. Atala

Definizioak

3. Artikulua

1. Zuzentarau honen ondorioetarako, definizio hauek aplikatuko dira:

- a) «kreditu-entitateak», 2006/48/EE Zuzentaruaren 4. artikuluan 1. paragrafoan definitutako kreditu-entitate guztiak;
- b) «inbertsio-enpresak», 2004/39/EE Zuzentaruaren 4. artikuluan 1. paragrafoaren 1. puntuan definitzen diren entitateak, zuzentarau horretan ezartzen diren eskakizunak bete behar dituztenak, ondokoak salbuetsita:
- i) kreditu-entitateak;
- ii) tokiko enpresak, p) idatz-zatian definitutako moduan; eta
- iii) inbertsio-arloan aholkularitza-zerbitzuak eskaintzeko edo bezeroen fondorik edo balore higigarriak izan gabe inbertitzailen agindua

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

- jaso edo transmititzeko baimena bakarrik duten enpresak, horregatik bezero horiekiko inoiz ere zordun izaterik ez dutenak.
- c) «entitateak», kreditu-entitateak eta inbertsio-enpresak;
- d) «hirugarren herrialdeetako inbertsio-enpresa aitortuak», ondoko baldintza hauek betetzen dituzten enpresak:
- i) erkidegoan ezarrita baleude, inbertsio-enpresa definizioa beteko luketen enpresak;
 - ii) hirugarren herrialde batean baimendutako enpresak; eta
 - iii) agintari eskudunen iritziz, gutxienez zuzentarau honetan ezarritako zuhurtziazko arauak bezain zorrotzak diren arauen menpe eta horiei egokitu dauden enpresak;
- e) «finantza-tresna», alde bateko finantza-aktibo bat zein beste alde bateko finantza-pasibo bat edo kapital-tresna bat sortuko duen edozein kontratu;
- f) «Estatu kide bateko inbertsio-enpresa matrizea», ondokoak betetzen dituen inbertsio-enpresa da: entitate bat edo finantza-entitate bat filializat izatea, edo entitate horietan partaidetza izatea eta estatu kide horretan baimendutako entitate baten filiala edo estatu kide horretan finkatutako balore zorroa kudeatzeko sozietate finantzario baten filiala ez izatea.
- g) «EBko inbertsio-enpresa matrizea», estatu kide batean ezarritako inbertsio-enpresa, edozein estatu kideetan baimendutako edozein entitaterean filiala ez dena, edo edozein estatu kideetan finkatutako balore-zorroa kudeatzeko sozietate finantzario batena filiala ez dena;
- h) «merkatu arautuetan negoziatu gabeko tresna eratorriak», 2006/48/EE Zuzentarauaren IV. eranskinetako zerrendan jasota dauden partidak, betiere, zuzentarau horretako III. eranskinaren 2. parteko 6. puntuaren arabera, zero esposizio-balioa esleituta duten partidekiko ezberdinak direnean.
- i) «merkatu arautua», 2004/39/EE Zuzentarauaren 4. artikulua 1. paragrafoaren 14. puntuan zehazten denaren arabera edozein merkatu;
- j) «balore bihurtgarria», edukitzaileak hala nahi izanez gero beste balore batengatik truka daitekeen balorea;
- k) «erosteko aukeraren ziurtagiria (warrant)», balore bat da, berau amaitzen den artean edota data horretan bertan, balorearen edukitzaileari azpiko tresna bat ezarritako prezio batean erosteko eskubidea ematen diona. Eragiketa azpiko tresna hori entregatuz ala esku-dirutan likidatu ahal izango da;
- l) «izakinen finantzaketa» izakin materialen eperako salmentaren ondorioz eta finantzaketa-kostua atzeratutako salmenta horretarako data arte izoztearen ondorioz sortutako posizioak.
- m) «berrerosteko akordioa» eta «alderantzizko berrerosteko akordioa», akordio honen bidez entitate batek edo bere aurkako alderdiak, baloreak, lehengaien edo baloreen titulartasunarekin lotutako bermatutako eskubideak edo lehengaiak ematen ditu (betiere, balore, lehengai edo lehengaien edo baloreen titulartasunarekin lotutako bermatutako eskubide horien bermea, lehengaien edo baloreen gaineko eskubideak dituen merkatu antolatu batek jaulki duenean, eta akordioak aurkako alderdi bati baino gehiagori aldi berean balore edo lehengai jakin baten lagapen edo pignorazio bat baino gehiago egitea baimentzen ez duenean balio edo lehengai horiek berrerosteko konpromisoa hartuz), edo – ezaugarri berdinak dituzten ordezko balore edo lehengaiak– ezarritako prezioan eta ezarritako etorkizuneko data batean edo lagatzaileak ezarriko duen data batean; delako lagapen hori balore edo lehengaiak saltzen dituen entitatearentzat berrerosteko akordio bat izango da, eta alderantzizko berrerosteko akordioa erosten dituen entitatearentzat.
- n) «baloreen edo lehengaien mailegua» eta «baloreak edo lehengaiak maileguz hartzea», transakzio bat da, zeinaren bidez entitate batek edo bere aurkako alderdiak baloreak edo lehengaiak berme egoki baten truke ematen baititu, baina mailegu-hartzaileak balore edo lehengai horien balioak etorkizuneko data batean, edo emaileak eskatzen duenean, bueltatuko dituelako baldintzarekin; transakzio hori baloreen edo lehengaien mailegu bat izango da balore edo lehengaiak ematen dituen entitatearentzat, eta aldez, baloreak edo lehengaiak maileguz hartzea berauek jasotzen dituen entitatearentzat;
- o) «kide konpentsatzailea» antolatutako merkatu bateko edo konpentsazio-ganbera bateko kide bat da, aurkako parte nagusiarekin (merkatu-bermatzailearekin) kontratu-harreman zuzena duena;
- p) «tokiko enpresa», opzioen merkatuetan, eperako merkatuetan edo beste merkatu eratorri batzuetan bere kontura dabilen edozein enpresa, eta diru-merkatuetan eratorrien merkatuen gaineko posizioek dakartzaten arriskuak estaltzea helburu bakartzat izanik eratorrien merkatuetan ari dena, edo merkatu horietako beste kide batzuen kontura ari den enpresa oro, eta halaber, tokiko enpresa horiek egindako kontratuen betetzea merkatu horietako kide konpentsatzaileek bermatzeaz gain merkatu horietako kide konpentsatzaileen abala dutenak.
- q) «delta», aukeraren azpiko tresnaren prezioaren aldaketa txiki batekiko, aukera baten prezioak jasango duen aldaketaren aurreikuspena;

r) «fondo propioak» 2006/48/EE Zuzentarauak definitutako fondo propioak; eta

s) «kapitala», fondo propioak.

Oinarri kontsolidatuko ikuskapenaren aplikazioari dagokionez, inbertsio-enpresa terminoak hirugarren herrialdeetako inbertsio-enpresak hartuko ditu barnean.

e) idatz-zatiaren ondorioetarako, finantza-tresnek barnean hartuko dituzte bai lehen mailako finantza-tresnak, primarioak edo kutxa-tresnak, eta bai eratorritako finantza-tresnak ere, azken horien balioa azpiko finantza-tresnen prezioetik, tasa batetik, indize batetik edo azpiko beste elementu baten prezioetik eratorritako da, eta gutxienez, 2004/39/EE Zuzentarauko I. eranskineko C atalean agertzen diren tresnak hartuko dituzte.

2. «Enpresa matrize», «enpresa filial», «aktiboak kudeatzeko sozietatea» eta «finantza-entitateak» terminoek, barnean hartuko dituzte 2006/48/EE Zuzentarauaren 4. artikuluan hala definitutako enpresak.

«Balore-zorroa kudeatzeko sozietatea», «Estatu kide bateko balore-zorroa kudeatzeko sozietate matrizea», «EBko balore-zorroa kudeatzeko sozietatea» eta «zerbitzu osagarrien enpresa» terminoek, barnean hartuko dituzte 2006/48/EE Zuzentarauaren 4. artikulua definitutako enpresak, ondoko salbuespenarekin, kreditu-entitatea aipatzen denean entitateei egindako erreferentzia izango da.

3. 2. artikuluko 1. paragrafoan aipatutako taldeetatik kreditu-entitateak ez dutenei 2006/48/EE Zuzentaru aplikatzeari begira, ondoko definizioak aplikatuko dira:

a) «balore-zorroa kudeatzeko sozietatea» delakoa, nagusiki edo bakarrik inbertsio-enpresak edo bestelako finantza-entitateak filialtzat dituen finantza-entitatea da eta horietako batek, gutxienez, inbertsio-enpresa izan behar du; halaber, ezin izango du zorro-sozietate finantzario mistoa izan 2002/87/EE Zuzentarauak (Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2002ko abenduaren 16koa, finantza-talde bateko kreditu-entitateen, aseguru-enpresen eta inbertsio-enpresen ikuskapen osagarriari buruzkoa) ezartzen duenaren ondorioetarako⁽¹⁾;

b) «zorro-sozietate mistoa» balore-zorroa kudeatzeko sozietate bat ez den enpresa matrize bat izango da, edo inbertsio-enpresa bat ez dena, edo zorro-sozietate finantzario misto bat ez dena 2002/87/EE Zuzentarauaren ondorioetarako, eta haren enpresa filialen artean inbertsio-enpresa bat egongo da gutxienez; eta

c) «agintari eskudunak» izango dira inbertsio-enpresak ikuskatzeko ahalmena legez edo erregelamenduz jaso duten nazioko agintariak.

II. KAPITULUA

Hasierako kapitala

4. Artikulua

Zuzentaru honen aplikazioari dagokionez, «hasierako kapitala» terminoak 2006/48/EE Zuzentarauaren 57. artikulua a) eta b) idatz-zatiak hartuko ditu barne.

5. Artikulua

1. Beren konturako finantza-tresnekin negoziatzen ez duten eta finantza-tresnen jaulkipenak aseguratzen ez dituzten, baina beren bezeroen fondoak eta/edo baloreak dituzten, eta ondoko zerrendan aipatzen diren zerbitzuetako bat eskaintzen duten inbertsio-enpresen hasierako kapitala 125.000 EUR izango da:

- finantza-tresnen gaineko inbertitzaileen aginduak jasotzea eta transmititzea;
- finantza-tresnen gainean inbertitzaileek emandako aginduak betetzea; edo
- finantza-tresnetako inbertsio-zorro indibidualak kudeatzea.

2. Eskudun agintariak baimena eman diezaiekete inbertitzaileek finantza-tresnei buruz emandako aginduak betetzen dituzten inbertsio-enpresei, finantza-tresna horiek beren kontuan mantentzeko; betiere, ondoko baldintzak betetzen badira:

- posizio horiek inbertsio-enpresak bezeroengandik jasotako aginduak bateratu ezin izan dituelako sortzen badira;
- posizio horien guttizko merkatu-balioak enpresaren hasierako kapitalaren % 15 gainditzen ez badu;
- enpresak 18., 20., eta 28. artikuluetan ezarritako eskakizunak betetzen baditu; eta
- posizio horiek ezustekoak eta behin-behinekoak badira eta delako transakzioa egiteko beharrezkoa den denbora tartera soilik mugatuta badaude.

Negoiazio-zorrotik kanpo utzitako finantza-tresnetan, fondo propioak inbertitzeko helburuaz, posizioak edukitzea ez da jardueratzat hartuko lehen paragrafoan xedatutako zerbitzuei dagokienez eta 3. paragrafoaren testuinguruan.

3. Estatu kideek lehen paragrafoan ezarritako zenbatekoa 50.000 eurora murriztu ahal izango dute, enpresak bere bezeroen fondo edo balio higigarriak gordailutan izateko baimenik ez duenean eta bere

¹ L 35 EO, 2003.2.11, 1. or. Zuzentaru horren azken aldaketa 2005/1/EE Zuzentaru da.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

kontura negoziatzeko edo jaulkipenak aseguratzeko baimenik ere ez duenean.

6. Artikulua

Tokiko enpresek 50.000 euroko hasierako kapitala izan beharko dute 2004/39/EE Zuzentarauaren 31. eta 32. artikuluetan xedatzen den kokatze-askatasuna edo zerbitzuak emateko askatasuna baldin badute.

7. Artikulua

3. artikuluko b) idatz-zatiko iii) tartekietan zehaztutako enpresek ondokoak izango dituzte:

- a) 50.000 euroko hasierako kapitala;
- b) Erkidegoko lurralde osoa hartuko duen erantzukizun zibileko aseguru profesionala, edo lanbide-zabarkeriaren ondoriozko erantzukizunari aurre egiteko pareko beste edozein berme, kalteen erreklamazioetarako 1.000.000 euroko gutxieneko estaldura izango duena, eta erreklamazio guztietarako urteroko 1.500.000 euroko guztizkoa izango duena; edo
- c) a) edo b) idatz-zatietako estalduraren parekoa ekarriko duen hasierako kapital eta erantzukizun zibileko aseguru profesionalen konbinaketa.

Batzordeak aldian-aldian berrikusiko ditu lehen lerrokadan aipatutako zenbatekoak Eurostatek argitaratutako Europako kontsumoko prezioen indizearen aldaketak kontuan izateko, eta doikuntza horiek bat egingo dute aseguru-bitartekotzari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren, 2002ko abenduaren 9ko 2002/92/EE Zuzentaruako 4. artikuluko 7. paragrafoan ⁽¹⁾ xedatutakoekin.

8. Artikulua

3. artikuluko 1. paragrafoaren b) idatz-zatiaren iii) tartekiak aipatzen dituen inbertsio-enpresetako bat 2002/92/EE Zuzentarauaren arabera ere erregistratua dagoenean, zuzentaru horretako 4. artikuluko 3. paragrafoan xedatutako eskakizuna bete beharko du eta, gainera, ondokoak izan beharko ditu:

- a) 25.000 euroko hasierako kapitala;
- b) Erkidegoko lurralde osoa hartuko duen erantzukizun zibileko aseguru profesionala, edo lanbide-zabarkeriaren ondoriozko erantzukizunari aurre egiteko pareko beste edozein berme, kalteen erreklamazioetarako 500.000 euroko gutxieneko estaldura izango duena, eta erreklamazio guztietarako urteroko 750.000 euroko guztizkoa izango duena; edo
- c) a) edo b) idatz-zatietako estalduraren parekoa ekarriko duen hasierako kapital eta erantzukizun zibileko aseguru profesionalen konbinaketa.

9. Artikulua

Gainerako inbertsio-enpresek, 5.etik 8.era bitarteko artikuluetan jasotakoez bestelako inbertsio-enpresek, 730.000 euroko hasierako kapitala izan beharko dute.

10. Artikulua

1. 5. artikuluko 1. eta 3. paragrafoetan, 6. artikuluan eta 9. artikuluan xedatutakoa gorabehera, estatu kideek 1995eko abenduaren 31 aurretik zeuden inbertsio-enpresen eta 6. artikuluan xedatutako enpresen jarduera baimentzen jarrai dezakete, horien fondo propioak 5. artikuluko 1. eta 3. paragrafoetan, 6. artikuluan eta 9. artikuluan zehazten diren hasierako kapitalen zenbatekoak baino baxuagoak badira ere.

Enpresa horien guztien fondo propioek ezingo dute inola ere, zuzentaru honetan jasotako jakinarazpen-dataren ostean kalkulaturako erreferentzia-maila altuenetik behera egin. Erreferentzia-maila hori, fondo propioen eguneroko batez besteko maila izango da, kalkulu-dataren aurreko sei hilabeteak kontuan hartuta kalkulaturako. Erreferentzia-maila hori sei hilero kalkulaturako da dagokion aurreko epearekiko.

2. Lehen paragrafoan zehaztutako enpresetako baten kontrola, aurretik kontrola zuena ez den pertsona fisiko edo juridiko batek hartzen duenean, enpresa horren fondo propioek ezingo dute 5. artikuluko 1. eta 3. paragrafoetan, 6. artikuluan eta 9. artikuluan enpresa horretarako xedatutako mailatik behera egin; salbuespen izango dira 1995eko abenduaren 31ren ostean oinordetzaz gertatutako lehen transmisioen kasuak baldin eta agintari eskudunen onespina badute, eta, betiere, transmisio-datatik hasita, gehienez ere, 10 urtez.

3. Baldintza berezietan eta agintari eskudunen onespenearekin, inbertsio-enpresa bik edo gehiagok eta/edo 6. artikuluan zehaztutako enpresa bik edo gehiagok bat egiten dutenean, sortutako enpresaren fondo propioak 5. artikuluko 1. eta 3. paragrafoetan, 6. artikuluan eta 9. artikuluan enpresa horretarako ezarritako mailaren azpitik egon ahal izango dira. Hala ere, 5. artikuluko 1. eta 3. paragrafoetan, 6. artikuluan eta 9. artikuluan ezarritako mailak lortu artean, enpresa berriaren fondo propioak ezingo dira izan bat egin duten enpresek bat egitea gertatu zenean zituzten fondo propioen batura baino baxuagoak.

4. Inbertsio-enpresen eta 6. artikuluan jasotako enpresen fondo propioek ezingo dute 5. artikuluko 1. eta 3. paragrafoetan, 6. artikuluan, 9. artikuluan eta artikuluko honetako 1. eta 3. paragrafoetan ezarritako mailatik behera egin.

Hala ere, enpresa horien fondo propioek maila horretatik behera egingo balute, agintari eskudunek enpresa horiei epe bat eman ahal izango diete beren egoera konpon dezaten edo jarduera eten dezaten, baldintzek halakorik justifikatzen dutenean.

III. KAPITULUA

¹ L 9 EO, 2003.1.15, 3. or.

Negoiazio-zorroa

11. Artikulua

1. Entitate baten negoiazio-zorroa enpresak finantza-tresnetan eta lehengaietan dituen posizio guztiek osatuko dute, horien xedea negoiazioa dela edo negoiazio-zorroaren gainerako elementuen estaldura-funtzioa dela ere; posizio horiek ez dute negoiaziorako edo estaldurarako murrizketarik izango.

2. Negoiazioetarako posizioak ondoko hauek dira: epe laburrean berriro saltzeko edo diferentzia errealak baliatzeko, edo epe laburrean espero diren erosketa- eta salmenta-aldeak baliatzeko, edo prezio edo interes-tasen aldatetak baliatzeko asmoz mantentzen direnak. «Posizioak» terminoak barnean hartzen ditu norberaren posizioak, bezeroei zerbitzuak ematek sortzen diren posizioak eta merkatua sortzekoak.

3. Posizioa edo zorroa kudeatzeko entitateak erabilitako estrategiek, politikek eta prozedurek egiaztatuko dute negoiazio-nahia, VII. Eranskinaren A zatiarekin bat eginez.

4. Entitateek beren negoiazio-zorroa kudeatzeko sistema eta kontrolak ezarri eta mantenduko dituzte, VII. eranskinaren B eta D zatiekin bat etorritz.

5. Barne-estaldurak negoiazio-zorroan sar daitezke, kasu horretan VII. eranskinaren C zatia izango da aplikagarri.

IV. KAPITULUA

Fondo propioak

12. Artikulua

Oinarrizko fondo propioak 2006/48/EE Zuzentarauaren 57. artikuluko a), b) eta c) idatz-zatien baturari i), j) eta k) idatz-zatien batura kentzearen ondorioz lortzen den emaitza izango dira.

Batzordeak, beranduen, 2009ko urtarrilaren lehen Europako Parlamentuari eta Kontseiluari aurkeztuko die kapitulu hau aldatzeko proposamena.

13. Artikulua

1. Artikulu honen 2.etik 5.era arteko paragrafoetan ezarritakoari eta 14.etik 17.era arteko artikuluetan ezarritakoari kalterik egin gabe, inbertsio-enpresen eta kreditu-entitateen fondo propioak 2006/48/EE Zuzentarauan ezarritakoarekin bat etorritik zehaztuko dira.

Halaber, lehen lerrokada aplikatuko zaie 78/660/EEE laugarren Zuzentarauaren (1978ko uztailearen 25ekoa, sozietate-forma jakin batzuen urteroko kontuei

buruzkoa()) 1. artikulua 1. paragrafoan aipatutako forma juridikoak ez dituzten inbertsio-enpresei. ⁽¹⁾

2. 1. paragrafoan ezarritakoa gorabehera, eskudun agintariak baimendu ahal izango dute 21. artikuluari, 28.etik 32.era arteko artikuluei eta I., III. eta VI. eranskinei jarraiki kalkulaturako kapital-eskakizunak betetzeko beharra duten entitateek, eskakizun horiek betetzeko helburuaz bakarrik, fondo propioen definizio alternatibo bat balia dezatela. Fondo propioen inongo frakzio ezin izango da aldi berean erabili gainerako kapital-eskakizunak betetzeko.

Definizio alternatibo horrek ondoren datozen a), b) eta c) puntuak hartuko ditu eta d) puntuko elementua kenduko zaio jarraian, betiere, azken elementu hori kentzea agintari eskudunen erabakia izango da:

a) fondo propioak, 2006/48/EE Zuzentarauan zehaztutako moduan; salbuespen izango dira zuzentaru horretako 57. artikuluko l) eta p) bitarteko puntuak, a), b) eta c) elementuen baturaren ostean d) elementua kendu behar duten inbertsio-enpresentzat;

b) entitatearen negoiazio-zorroaren mozkin garbiak (aurreikusteko moduko edozein karga edo dibidendu alde aurretik kenduta) gainerako jardueretako galera garbiak kenduta, betiere, zenbateko horietako bat bera ere, 2006/48/EE Zuzentaruako 57. artikuluko b) edo k) puntuei dagozkien a) elementu gisa kontsignatu ez bada.

c) mendeko zorra eta/edo artikuluko honetako 5. paragrafoan aipatutako elementuak, artikuluko honetako 3. eta 4. paragrafoetan eta 14. artikuluan ezarritako baldintzekin; eta

d) aktibo ez likidoak, 15. artikuluan zehazten diren moduan.

3. 2. paragrafoko bigarren lerrokadako c) idatz-zatian aipatzen den menpeko zorraren hasierako iraupena, gutxienez 2 urtekoa izango da. Guztiz ordainduko da zor hori eta mailegu-kontratuak, agintari eskudunek hala baimendu ezean, ez du izango klausularik, egoera jakin batzuetan, zorra adostutako amortizazio-data baino lehenago amortizatzeke aukera emango duenik –entitatearen likidazioaren kasua salbuetsita–. Menpeko zor horren printzipala, ez eta horren interesak ere, ezingo dira ordaindu ordainketa horrek entitate jakin horren fondo propioak bere kapital-eskakizun orokorren % 100aren azpitik jarriko baditu.

Gainera, entitateek agintari eskudunei menpeko mailegu horien amortizazio guztiak jakinarazi beharko dizkiete, amortizazio horiek entitatearen fondo propioak entitatearen kapital-eskakizun orokorren % 120aren azpitik jarriko badituzte.

¹ L 222 EO, 1978.8.14, 11. or. Zuzentaru horren azken aldaketa Europako Parlamentuaren eta Kontseilua 2003/51/EE Zuzentaru da (L 178 EO, 2003.7.17, 16. or.)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

4. 2. paragrafoko 2. lerrokadako c) idatz-zatiak aipatzen duen menpeko zorrak ezingo du gainditu 21. artikulua eta 28.etik 31.era arteko artikuluen eta I.tik VI.era arteko eranskinen arabera kalkulaturako eskakizunak estaltzeko helburua duten oinarritzko fondo propioen % 150a, eta eskudun agintariak onargarriak jotzen dituzten egoera zehatzetan soilik hurbildu ahal izango dute zenbateko horretara.

5. Agintari eskudunek entitatei 2. paragrafoko c) idatz-zatian aipatutako menpeko zorra 2006/48/EE Zuzentarauko 57. artikuluko d)tik h)ra bitarteko idatz-zatiekin ordezkatzeko baimena eman diezaiekete.

14. Artikulua

1. Agintari eskudunek, zuhurtziazko ikuspegitik egokiak izan daitezkeen kasuetan, inbertsio-enpresei 13. artikulua eta 4. paragrafoan menpeko zorrari ezarritako muga gainditzeko baimena eman diezaiekete, betiere, menpeko zor horren eta 13. artikuluko 5. paragrafoko elementuen zenbatekoak 21., 28. eta 32. artikuluetan eta I., III. eta VI. eranskinetan ezarritako betekizunak estaltzera zuzendutako oinarritzko fondo propioen % 200a gainditzen ez badute, edo zenbateko horren % 250a, inbertsio-enpresek haien fondo propioak kalkulatzeko 13. artikuluko 2. paragrafoko d) elementua kentzen dutenean.

2. Agintari eskudunek, zuhurtziazko ikuspegitik egokiak izan daitezkeen kasuetan, kreditu-entitatei 13. artikulua eta 4. paragrafoan menpeko zorrari ezarritako muga gainditzeko baimena eman diezaiekete, betiere, menpeko zor horren eta 2006/48/CE artikuluko 57. paragrafoko d)tik h)ra bitarteko idatz-zatien baturak 28.-32. artikuluetan eta zuzentarau honetako I., III. eta VI. eranskinetan ezarritako betekizunak estaltzera zuzendutako oinarritzko fondo propioen % 250a gainditzen ez badute.

15. Artikulua

13. artikuluko 2. paragrafoko bigarren lerrokadako d) idatz-zatian aipatzen diren aktibo ez likidoak, ondoko hauek hartuko dituzte barnean:

- a) aktibo finko materialak, lurra eta eraikinak horiek finantzatzen dituzten maileguen berme izateko baimena ematen denean izan ezik;
- b) kreditu-entitateetako edo bestelako finantza-entitateetako partaidetzak, menpeko zorra barne, partaidetza horiek entitateon fondo propioen parte izan badaitezke, eta 2006/48/EE Zuzentaruaren 57. artikuluko l)tik p)ra bitarteko idatz-zatiei jarraiki kendu ez badira, edo Zuzentaru honetako 16. artikuluko d) idatz-zatiari jarraiki;
- c) kreditu-entitateak edo bestelako finantza-entitateak ez diren enpresetako partaidetzak eta bestelako inbertsioak, betiere, erraz negoziatzeko modukoak ez badira;

d) filialetako defizitak;

e) 90 eguneko epean itzulgarriak ez diren gordailuak, gerokoen edo aukeren kontratuen testuinguruan bermeei dagozkienak salbuetsita;

f) 90 eguneko epean itzulgarriak ez diren maileguak eta sorrarazitako bestelako zenbatekoak; eta

g) izakin materialak, 18. eta 20. artikuluetan ezarritako eskakizunak bezain zorrotzak ez diren kapital-eskakizunen menpe daudenean izan ezik.

b) idatz-zatiari dagokionez, entitate bat berrantolatu edo ez hondatzeko helburuarekin emandako finantza-laguntzako eragiketa baten ondorioz, kreditu-entitate baten edo finantza-entitate baten akzioak aldi baterako mantentzen diren kasuetan, agintari eskudunek artikulua hau betetzetik aske utzi ditzakete. Era berean, inbertsio-enpresaren negoziazio-zorroko akzioentzako salbuespen bat ere, xeda dezakete.

16. Artikulua

22. artikulua jasotzen duen salbuespena onartua izan duten taldeetako kide diren inbertsio-enpresek, beren fondo propioak kalkulatzekoan 13.etik 15.era arteko artikuluetan xedatutako kontuan izan behar dute, ondokoak salbuetsita:

a) 13. artikulua eta 2. paragrafoko d) idatz-zatiak aipatzen dituen aktibo ez likidoak kenduko dira;

b) 13. artikuluko 2. paragrafoko a) idatz-zatiak aipatzen duen salbuespenak ez ditu barnean hartuko baterakuntzan parte hartzen duten filialekiko inbertsio-enpresa batek dituen 2006/48/EE Zuzentaruaren 57. artikuluko l) idatz-zatitik p) idatz-zatira bitarteko elementuak, Zuzentaru honetako 2. artikuluko 1. paragrafoan definitzen diren moduan;

c) 2006/48/EE Zuzentaruaren 66. artikuluko 1. paragrafoko a) eta b) idatz-zatietan aipatzen diren mugak kalkulatzeko, oinarritzko fondo propioei 2006/48/EE Zuzentaruaren 57. artikuluko l) idatz-zatitik p) idatz-zatira bitarteko elementuak (artikulu honetako b) idatz-zatian aipatutakoak), eta enpresa horien oinarritzko fondo propioen parte direnak, kenduko zaizkie; eta

d) artikulu honetako c) idatz-zatian aipatutako 2006/48/CE Zuzentaruaren 57. artikuluko l) idatz-zatitik p) idatz-zatira bitarteko elementuak, oinarritzko fondo propioei kenduko zaizkie, eta ez elementuen guztizkoari Zuzentaru horretako 66. artikuluko 2. paragrafoak dioen bezala, bereziki, Zuzentaru honetako 13. artikuluko 4. eta 5. paragrafoen eta 14. artikulua onorioetarako.

17. Artikulua

1. Erakunde batek zuzentaru honetako II. eranskinaren ondorioetarako arrisku haztatuen zenbatekoak kalkulatzeko dituen 2006/48/EE Zuzentaruaren 84.etik 89.era arteko artikuluetako

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

xedapenei jarraiki, eta ondoren 2006/48/EE Zuzentarauaren VII. eranskinaren 1. zatiaren 4. azpizatian xedatutako kalkuluaren ondorioetarako, ondokoak aplikatuko dira:

a) II. eranskinean aipatutako arriskueterako egindako balio-doikuntzen eta horniduren zenbatekoan gehitu ahal izango dira aurkako partearen kreditu-kalitatea kontuan hartzeko balio-doikuntzak; eta

b) agintari eskudunen onarpenak baldintzatuta, aurkako partearen kreditu-arriskua negoziazio-zorroan dagoen posizioa balioestean behar bezala kontuan hartzen bada, aurkako partearen arriskuak ekar dezakeen galera deuseza izango da.

a) idatz-zatiaren ondorioetarako, entitate hauei dagokienez, balio-doikuntza horiek ez dira fondo propioetan sartuta egongo, paragrafo honetan xedatutakoarekin bat eginez ez bada.

2. Artikulu honen ondorioetarako, 2006/48/EE Zuzentarauaren 153. eta 154. artikulua aplikagarriak izango dira.

V. KAPITULUA

1. Atala

Arrisku-estaldura

18. Artikulua

1. Entitateek, uneoro, ondoko hauen batura gainditu edo berdinduko duten fondo propioak izango dituzte:

a) negoziazio-zorroaren gaineko kapital-eskakizunenak, 28.-31. artikuluetan eta I., II. eta VI. eranskinetan ezarritako metodo eta aukeren arabera kalkulatu, eta hala dagokionean V. eranskinean ezarritakoaren arabera; eta

b) bere jarduera guztien gaineko kapital-eskakizunenak, III. eta IV. eranskinetan ezarritako metodo eta aukeren arabera kalkulatu eta, hala dagokionean V. eranskinean ezarritakoaren arabera.

2. 1. paragrafoan xedatutakoa gorabehera, agintari eskudunek baimendu ahal izango dute entitateek, negoziazio-zorroari dagokionez, kapital-eskakizunak 2006/48/EE Zuzentarauaren 75. artikuluko a) idatz-zatiaren eta Zuzentaru honen II. eranskineko 6., 7. eta 9. puntuen arabera kalkulatu, betiere, negoziazio-zorroaren tamainak ondoko eskakizunak betetzen baditu:

a) negoziazio-baloreen zorroak, orokorrean, guztizko jardueraren % 5 gainditzen ez duenean; eta

b) negoziazio-zorroaren posizioen guztizkoak, normalean, 15 milioi euro gainditzen ez dituenean; eta

c) negoziazio-zorroak, ezein kasutan ere, guztizko jardueraren % 6a gainditzen ez duenean eta negoziazio-zorroaren posizioen guztizkoak, ezein kasutan ere, 20 milioi euro gainditzen ez dituenean.

3. 2. paragrafoko a) eta c) idatz-zatien ondorioetarako, negoziazio-zorroari dagokien jarduerak guztizko jarduerarekiko duen proportzioa balioesteko helburuaz, agintari eskudunek ondokoetara jo ahal izango dute: balantze eta ordena kontuetara, galera eta irabazien kontura, edo dagokien entitateen fondo propioetara, edo neurri horien konbinaketaren batera. Jardueraren bolumena balantzearen eta ordena-kontuen arabera kalkulatu denean, zor-tresnak haien merkatu-prezioan edo balio nominalean kontabilizatuko dira, akzioak bere merkatu-prezioan eta eratorritako tresnak haien azpiko tresnen balio nominalean edo merkatu-balioan. Posizio luze eta laburrak batu egingo dira, horien zeinua dena dela.

4. Entitate batek 2. paragrafoko a) eta b) idatz-zatietan ezarritako muga bat edo biak nahiko luzea den epe batean gaindituz gero, edo 2. paragrafoko c) idatz-zatien ezarritako muga bat edo biak gaindituz gero, lehen paragrafoko a) idatz-zatiak xedatutako eskakizuna ezarriko da negoziazio-zorroarekin lotutako eragiketei dagokienez, bai eta agintari eskudunei jakinarazteko beharra ere.

19. Artikulua

1. I. eranskinaren 14. puntuaren helburuetarako, agintari eskudunek hala erabakita, I. eranskinaren 1. taulan zerrendatutako entitateek jaulkitako zorbaloereri % Oko ponderazio/haztapena esleitu ahal izango zaie, balore horiek moneta nazionallean izendatu eta finantzatuta daudenean.

2. I. eranskinaren 13. eta 14. puntuetan ezarritakoa gorabehera, Estatu kideek 2006/48/EE Zuzentarauaren VI. eranskineko 1. zatiko 68.etik 70.era arteko puntuen esparruan sartzen diren betebeharrarako arrisku espezifiko eskakizun bat ezarri ahal izango dute; eskakizun hori obligazioaren hondar-mugaegun bera duen balore kualifikatu batentzat ezarritako arrisku espezifikoaren eskakizunaren baliokidea izango da, Zuzentaru horretako VI. eranskineko 1. zatiko 72. puntuan zehaztutako ehunekoaren arabera murriztua.

3. I. eranskinaren 52. puntuan xedatu bezala, eskudun agintariak hirugarren herrialde bateko inbertsio kolektiboko erakunde bat (IKE) hautagarritzat onartzen badute, beste estatu kide bateko agintari eskudunek, ebaluaketa berri bat egin gabe onarpen hori bera erabili ahal izango dute.

20. Artikulua

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

1. Artikulu honetako 2., 3. eta 4. paragrafoetan eta zuzentarau honetako 34. artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe, 2006/48/EE Zuzentarauaren 75. artikuluan eskatutakoa inbertsio-enpresei aplikatuko zaie.

2. 1. paragrafoan xedatutakoa gorabehera, agintari eskudunek 2004/39/EE Zuzentarauko I. eranskinaren A atalaren 3. eta 6. puntuetan agertzen diren inbertsio-zerbitzuak eskaintzeko baimena ez duten inbertsio-enpresei fondo propioak emateko baimena eman ahal izango diete, betiere, ondoko zenbateko altuenak berdindu edo gaindituz:

a) 2006/48/EE Zuzentarauaren 75. artikuluko a), b) eta c) idatz-zatietan agertzen diren kapital-eskakizunen batura; eta

b) Zuzentarau honetako 21. artikuluan agertzen den zenbatekoa.

3. 1. paragrafoan xedatutakoa gorabehera, agintari eskudunek 9. artikuluan ezarritakoaren araberrako hasierako kapitala duten, eta ondoko kategorietan sartzen diren inbertsio-enpresei 2006/48/EE Zuzentarauaren 75. artikuluko a), b) eta c) idatz-zatietan xedatutakoarekin bat eginez kalkulaturako kapital-eskakizunen baturaren zenbatekoa, eta Zuzentarau honetako 21. artikuluko zenbatekoa beti berdindu edo gaindituko dituzten fondo propioak mantentzeko baimena eman diezaiekete:

a) bezero baten agindua betetzeko edo egikaritzeko helburu bakarrak beren kabuz jarduten diren inbertsio-enpresak, edo agentzia gisa jarduten direnean konpentsazio- eta likidazio-sistemaren batean edo aitortutako merkatu batean sartu ahal izateko helburuak ari direnean edo bezero baten agindua egikaritzean; eta

b) inbertsio-enpresak:

i) bezeroen diru edo baloreak mantentzen ez dituztenak;

ii) bere kabuz bakarrik aritzen direnak;

iii) kanpo-bezerorik ez dutenak;

iv) bere eragiketen egikaritzea eta likidazioa konpentsazioaz arduratzen den erakunde baten erantzukizuna direnean, eta erakunde horrek bermatzen dituen.

4. 2. eta 3. paragrafoetan aipatutako inbertsio-enpresek, 2006/48/EE Zuzentarauaren V. eranskinean xedatutako eragiketa-arriskuari dagokionez, gainerako xedapen guztien menpe jarraituko dute.

5. 2. eta 3. paragrafoak, edo 46. artikulua aplikagarri dituzten inbertsio-enpresei bakarrik aplikatuko zaie 21. artikulua, horietan xedatzen den moduan.

21. Artikulua

Inbertsio-enpresek aurreko ekitaldiko egitura-gastuen laurdenaren baliokideak diren fondo propioak izan behar dituzte.

Agintari eskudunek zenbateko hori doitu ahal izango dute enpresaren jarduera aurreko ekitaldiarekiko funtsean aldatu izan balituz.

Enpresak bere lehen ekitaldia oraindik bete ez badu, jarduerari ekin dion egunetik zenbatzen hasita, beharrezko kapitalaren zenbatekoa negozio-planean aurreikusitako egitura-gastuen laurdena izango da, agintari eskudunek plan horren aldaketa eskatzen duten kasuetan izan ezik.

2. Atala

Oinarri kontsolidatuko eskakizunak aplikatzea

22. Artikulua

1. 2. artikuluan xedatutako taldeen ikuskapena oinarri kontsolidatuan egin behar duten agintari eskudunek, kasuan kasu, oinarri kontsolidatuko kapital-eskakizunak aplikatzeari uko egin ahal izango diote, betiere, ondoko kasu hauetan:

a) talde horretako EBko enpresa guzti-guztiak fondo propioak kalkulatzeko 16. artikuluan xedatutakoa erabiltzen dutenean;

b) talde horretako enpresa guzti-guztiak 20. artikuluko 2. eta 3. paragrafoetako kategorietan sailka daitezkeenean;

c) talde horretako EBko enpresa guzti-guztiak bakarka 18. eta 20. artikuluetan xedatutakoa betetzen dutenean eta aldi berean, beren fondo propioetatik inbertsio-enpresen, finantza-entitateen, sozietate kudeatzaileen eta zerbitzu osagarrien enpresen alde, gainerako kasuetan oinarri kontsolidatuan sartuko litzatekeen edozein pasibo kontingente kentzen dutenean; eta

d) talde bateko edozein inbertsio-enpresari dagokionez, estatu kide bateko balore-zorroa kudeatzeko sozietate matrizea den balore-zorroa kudeatzeko sozietate orok duen kapitala, hemen 2006/48/EE Zuzentarauko 57. artikuluko a) idatz-zatitik h) idatz-zatira arteko elementuen batura gisa definitu dena, ondokoen baturaren parekoa izango da gutxienez: inbertsio-enpresetan, finantza-entitateetan, sozietate kudeatzaileetan eta zerbitzu osagarrien enpresetan dituen partaidetza, menpeko kreditu eta Zuzentarauaren 57. artikuluan aipatutako tresnen balioaren baturaren pareko guztizko kontabilitate balioa (bestela kontsolidatua izango litzatekeena), eta inbertsio-enpresetan, finantza-entitateetan, sozietate kudeatzaileetan eta zerbitzu osagarrien enpresetan edozein pasibo kontingenteren guztizko zenbatekoa (bestela kontsolidatua izango litzatekeena).

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Lehen paragrafoan ezarritako irizpideak betetzen direnean, EBko inbertsio-enpresa bakoitzak balore-zorria kudeatzeko sozietate, inbertsio-enpresa, finantza-entitate, sozietate kudeatzaileen eta zerbitzu osagarrien enpresa guztien kapital-iturburuen jarraipen- eta kontrol-sistemak izango ditu.

2. 1. paragrafoan xedatutakoa gorabehera, balore-zorria kudeatzeko sozietate finantzario bat, estatu kide batean, talde horretako inbertsio-enpresa baten balore-zorria kudeatzeko sozietate matrizea bada, eskudun agintariak baimena eman ahal izango diote 1. paragrafoaren d) idatz-zatiaren arabera ezarritako balioa baino baxuagoa den balio bat erabiltzeko, baina zenbateko hori ez da izango ondoko zenbatekoen batura baino baxuagoa: 18. eta 20. artikuluek inbertsio-enpresa, finantza-entitate, sozietate kudeatzaileen eta zerbitzu osagarrien enpresei bakarka eskatuko lieketen zenbatekoa (bestela kontsolidatua izango litzatekeena), eta inbertsio-enpresetan, finantza-entitateetan, sozietate kudeatzaileetan eta zerbitzu osagarrien enpresetan edozein pasibo kontingenteren guztizko zenbatekoa (bestela kontsolidatua izango litzatekeena). Paragrafo honen xedeei dagokienez, hirugarren herrialdeetako inbertsio-sozietateei, finantza-entitateei, sozietate kudeatzaileei eta zerbitzu osagarrien enpresei ezarritako kapital-eskakizuna kapital-eskakizun nozionala da.

23. Artikulua

Agintari eskudunek 22. artikuluan jasotako uko-egitea baliatu duten talde bateko inbertsio-enpresei eskatuko diete enpresa horien finantza-egoerari eragin diezaioketen arriskuak berri eman dezatela, haien kapital eta finantzaketaren osaeratik eta jatorritik eratorritakoak barne. Agintari eskudunek finantza-egoera hori behar bezala babestuta ez dagoela ondorioztatzen badute, inbertsio-enpresa horiei zenbait neurri inposatuko diete, besteak beste eta hala badagokio, taldeko entitateen arteko kapital-transferentziak mugatzea.

Agintari eskudunek 22. artikuluan xedatu bezala, oinarri kontsolidatuko ikuskapenaren betebeharrari uko egiten dioten kasuetan, arriskuak kontrolatzeko neurri egokiak hartuko dituzte, hau da, talde osoari dagozkion arrisku handiak kontrolatzeko neurriak, estatu kide batean finkatuta ez dagoen edozein enpresa barne hartuta.

Agintari eskudunek 22. artikuluan xedatutako oinarri kontsolidatuko kapital-eskakizunak aplikatzeari uko egiten badiete, 123. artikuluan eta 2006/48/EE Zuzentarauaren 5. kapitulu V. tituluaren oinarri indibidualerako xedatutakoa aplikatu beharko da, bai eta zuzentarau horretako 124. artikuluan inbertsio-enpresen ikuskapenari buruz oinarri indibidualerako xedatuta dagoena.

24. Artikulua

1. 2. artikuluko 2. paragrafoan xedatutakoa gorabehera, agintari eskudunek inbertsio-enpresak artikuluko horretan ezartzen diren kapital

kontsolidatuaren eskakizunetatik salbuetsi ditzakete inbertsio-enpresak, betiere, taldeko inbertsio-enpresa guztiak 20. artikuluko 2. paragrafoan aipatzen direnetakoak badira eta taldeak kreditu-entitateak ez baditu.

2. Lehen lerrokadan xedatutakoa betetzen den kasuetan, estatu kide bateko inbertsio-enpresa matrizeei eskatuko zaie haien fondo propio kontsolidatuek ondoren aipatuko diren zenbatekoak berdindu edo gainditu ditzatela, inbertsio-enpresa matrizearen posizio kontsolidatuaren oinarritik abiatuta eta artikuluko honen 3. atalarekin bat eginez:

- a) 2006/48/EE Zuzentarauaren 5. artikuluko a), b) eta c) idatz-zatietan agertzen diren kapital-eskakizunen batura; eta
- b) zuzentarau honetako 21. artikulua eskatzen duen zenbatekoa.

3. Lehen lerrokadan xedatutakoa betetzen den kasuetan, balore-zorria kudeatzeko sozietateek kontrolatutako inbertsio-enpresei eskatuko zaie haien fondo propio kontsolidatuek ondoren aipatuko diren zenbatekoak berdindu edo gainditu ditzatela, balore-zorria kudeatzeko sozietatearen posizio kontsolidatuaren oinarritik abiatuta eta artikuluko honen 3. atalarekin bat eginez kalkulatuta:

- a) 2006/48/EE Zuzentarauaren 75. artikuluko a), b) eta c) idatz-zatietan agertzen diren kapital-eskakizunen batura; eta
- b) zuzentarau honetako 21. artikulua eskatzen duen zenbatekoa.

25. Artikulua

2. artikuluko 2. paragrafoan xedatutakoa gorabehera, agintari eskudunek inbertsio-enpresak artikuluko horretan ezartzen diren kapital kontsolidatuaren eskakizunaren betebeharratik salbuetsi ahal izango dituzte, betiere, taldeko inbertsio-enpresa guztiak 20. artikuluko 2. eta 3. paragrafoetan aipatutakoetakoak badira eta taldeak kreditu-entitaterik ez badu.

Lehen lerrokadan xedatutakoa betetzen den kasuetan, estatu kide bateko inbertsio-enpresa matrizeari eskatuko zaio bere fondo propio kontsolidatuek ondoren aipatuko diren zenbatekoak berdindu edo gainditu ditzatela, batetik 2006/48/EE Zuzentarauaren 75. artikuluko a), b) eta c) idatz-zatietan agertzen diren kapital-eskakizunen batura, eta bestetik, zuzentarau honetako 21. artikuluan xedatutako zenbatekoa, betiere, balore-zorria kudeatzeko sozietatearen posizio kontsolidatuaren oinarritik abiatuta eta artikuluko honen 3. atalarekin bat eginez kalkulatuta.

Lehen lerrokadan xedatutakoa betetzen den kasuetan, balore-zorria kudeatzeko sozietate matrize batek kontrolatutako inbertsio-enpresa bati eskatuko zaio bere fondo propio kontsolidatuek ondoren aipatuko diren zenbatekoak berdindu edo gainditu ditzatela, batetik 2006/48/EE Zuzentarauaren 75. artikuluko a),

b) eta c) idatz-zatietan agertzen diren kapital-eskakizunen batura, eta bestetik, zuzentarau honetako 21. artikuluan xedatutako zenbatekoa, betiere, balore-zorroa kudeatzeko sozietatearen posizio kontsolidatuaren oinarritik abiatuta eta artikulua honen 3. atalarekin bat eginez kalkulaturik.

3. Atala

Eskakizun kontsolidatuen kalkulua

26. Artikulua

1. 22. artikulua aipatzen duen uko egiteko eskubidea egikaritzen ez denean, eta I. eta V. eranskinetan ezarritako kapital-eskakizunak oinarri kontsolidatuan eta 28.etik 32.era arteko artikuluetan eta VI. eranskinean zehaztutako bezeroen aurreko arriskuak kalkulatzeko ondorioetarako, agintari eskudunek erakunde bateko negoziazio-zorroko posizioak beste entitate bateko negoziazio-zorroko posizioekin konpentsatzeko baimena eman dezakete, 28.etik 32.era arteko artikuluetan eta I., V. eta VI. eranskinetan ezarritako arauekin bat eginez.

Gainera, agintari eskudunek entitate bateko dibisa-posizioak beste entitate bateko dibisa-posizioekin konpentsatzeko baimena eman dezakete, III. edo V. eranskinetan ezarritako arauak jarraiki. Halaber, entitate bateko lehengai-posizioak beste entitate bateko posizioekin konpentsatzeko baimena eman dezakete, IV. eta VI. eranskinetako arauak jarraituz.

2. Agintari eskudunek negoziazio-zorroak eta dibisa- eta lehengai-posizioak hirugarren herrialdeetan finkatutako enpresen negoziazio-zorro, dibisa- eta lehengai-posizioekin, hurrenez hurren, konpentsatzeko baimena eman dezakete, betiere, aldi berean ondoko baldintzak betetzen badituzte:

- a) enpresa horiek hirugarren herrialde batean baimenduak izatea eta 2006/48/EE Zuzentarauaren 4. artikulua 1. paragrafoak kreditu-entitateari ematen dion definizioarekin edo hirugarren herrialde batean inbertsio-enpresari emandako definizio onartu batekin bat egitea;
- b) enpresa horiek, banaka, Zuzentarau honetan ezarritako kapital-egokitze eskakizunak betetzea; eta
- c) delako hirugarren herrialde horietan talde barneko fondo-transferentzietan modu nabarian eragin diezaiekeen araudirik ez egotea.

3. Agintari eskudunek dagokion estatu kidean baimendutako taldeko kideen arteko konpentsazioa, 1. paragrafoan aipatutakoa, baimendu ahal izango dute, betiere, ondokoak betetzen badira:

- a) taldeko kapital-banaketa behar bezalakoa bada; eta
- b) entitate horien jardura arautzen duen arau-, zuzenbide- eta kontratu-esparruak taldearen

barruan finantza-laguntza bermatzea ahalbidetzen badu.

4. Gainera, agintari eskudunek 3. paragrafoan aurkeztutako eskakizunekin bat egiten duten talde bateko entitateen eta beste estatu kide batean baimendutako talde bereko edozein entitatearen artean, 1. paragrafoan deskribatutako konpentsazioa baimendu ahal izango dute, entitate horrek, bakarka, 18., 20. eta 28. artikuluetako kapital-eskakizunekin bat egiteko betebeharra badu.

27. Artikulua

1. Oinarri kontsolidatuko fondo propioak kalkulatzeko 2006/48/EE Zuzentarauko 65. artikulua aplikatuko da.

2. Kontsolidatutako fondo propioak kalkulatzeko, oinarri kontsolidatuaren ikuskapenaren ardura duten agintari eskudunek kasuan kasuko entitateei aplikagarri zaizkien fondo propioen definizio espezifikoak baliagarriak diren aztertu ahal izango dute.

4. Atala

Arrisku handien ikuskapena eta kontrola

28. Artikulua

1. Entitateek beren arrisku handiak ikuskatu eta kontrolatuko dituzte 2006/48/EE Zuzentarauaren 106.etik 118.era arteko artikuluetan xedatutakoari jarraiki.

2. 1. paragrafoan xedatutakoa gorabehera, kapital-eskakizunak beren negoziazio-zorroaren arabera eta I. eta II. eranskinekin eta, hala dagokionean, zuzentarau honen V. eranskinarekin bat etorri kalkulatu dituzten entitateek beren arrisku handiak 2006/48/EE Zuzentarauaren 106.-118. artikuluetan xedatutakoaren arabera kontrolatu eta ikuskatuko dituzte, zuzentarau honen 29.etik 32.era arteko artikuluek ezarritako aldaketekin.

3. 2007ko abenduaren 31rako, Batzordeak atal honen funtzionamenduari buruzko txosten bat eta dagokion proposamenak aurkeztuko dizkio Europako Parlamentuari eta Kontseiluari.

29. Artikulua

1. Negoziazio-zorroko banakako bezeroen aurreko arriskuak jarraian aipatuko diren elementuak batuz kalkulatu dira:

- a) bezeroak jaulkitako finantza-tresna guztietan entitatearen posizio luzeek posizio laburrekiko sortzen duten gaingikina –positiboa bada–, tresna bakoitzeko posizio garbiarekin I. eranskinean definitutako metodoen arabera kalkulaturik;
- b) arrisku garbia, zor-tresnen edo errenta aldakorreko tresnen aseguruia egin bada; eta

c) II. eranskinean aipatzen diren transakzio, akordio eta kontratuetatik eratorritako arriskuak, dagokion bezeroarekin burutu direnak; arrisku horiek eranskin horretan arrisku-balioak kalkulatzeko definitutako modua baliatuko da.

b) idatz-zatiaren ondorioetarako, arrisku garbia kalkulatzeko hirugarrenek egindako akordio formalen bidez harpidetu edo azpibermatu diren aseguru-posizioak kendu egingo dira, horiei I. eranskineko 41. puntuan ezarritako faktoreak kenduz.

b) idatz-zatiaren ondorioetarako, koordinazioa hobetu artean, agintari eskudunek entitateei eskatuko diete aseguru-arriskuen ikuskapen eta kontrolerako sistemak ezar ditzatela hasierako konpromisoaren eta lehen egun baliodunaren arteko epean, kasuan kasuko merkatuan nagusi diren arriskuen izaeraren arabera.

c) idatz-zatiaren ondorioetarako, 2006/48/EE Zuzentarauaren 84.etik 89.era arteko artikulua zuzentarau honetako II. eranskinaren 6. puntuan agertzen den aipamenetik kanpo geratuko dira.

2. Negoziazio-zorroan elkarrekin harremanetan dauden bezero-taldeetatik eratorritako arriskuak kalkulatzeko, talde bakoitzeko bezero bakoitzaren arriskuak batu egingo dira, 1. paragrafoan zehaztutakoari jarraiki.

30. Artikulua

1. Beraien artean harremanak dituzten banakako bezeroen edo bezero-taldeen arteko guztizko arriskua kalkulatzeko, negoziazio-zorrotik ondorioztatutako eta zorro horretatik kanpoko arriskuak batuko dira, 2006/48/EE Zuzentarauaren 112.etik 117.era arteko artikuluetan xedatutakoa kontuan hartuta.

Negoziazio-zorro horretatik kanpoko arriskuak kalkulatzeko, entitateek deuseztat joko dute 13. artikuluen 2. paragrafoaren bigarren lerrokadaren d) idatz-zatiaren arabera, bere fondo propioetatik kendutako aktiboen ondoriozko arriskua.

2. Entitate batek elkarrekin harremanak dituzten bezero-taldeen eta banakako bezeroen aurrean dituen arriskuen guztizkoak, 4. paragrafoan xedatutakoari jarraiki kalkulatu, 2006/48/EE Zuzentarauaren 110. artikulua zehazten duenaren arabera jakinaraziko dira.

Berrerosteko konpromisoa duten eragiketekin, balore edo lehengaiak mailegatzeko eragiketekin, edo baloreak eta lehengaiak maileguan hartzeko eragiketekin lotutakoak alde batera utzita, informazioaren ondorioetarako, elkarrekin harremanak dituzten bezero-taldeen eta banakako bezeroen arriskuen kalkulua ez du barnean hartuko kreditu-arriskuaren murrizketaren aitorpena.

3. Entitate batek elkarrekin harremanak dituzten bezero-taldeen eta banakako bezeroen aurrean dituen arriskuen batura, 1. paragrafoan aipatu den hori, 2006/48/EE Zuzentarauaren 111.etik 117.era arteko artikuluei jarraiki mugatuta egongo da.

4. Hirugarren paragrafoan xedatutakoaren aurka jarri gabe, agintari eskudunek baimendu dezakete kreditu-eskubideak diren aktiboak eta hirugarren herrialdeetan eta konpentsazio-ganberatan aitortutako inbertsio-enpresen aurreko arriskuak, eta finantzatzen merkatuek 2006/48/EE Zuzentarauaren 113. artikuluen 3. paragrafoaren i) tartekian, 115. artikuluko 2. paragrafoan eta 116. artikuluan xedaturako kreditu-entitateen aktiboentzat ezartzen den tratamendu bera jaso dezatela.

31. Artikulua

Agintari eskudunek 2006/48/EE Zuzentarauaren 111.etik 117.era arteko artikuluetan ezarritako mugak gainditzeko baimena eman dezakete, betiere, ondoko baldintza hauek betetzen badira:

a) kasuan kasuko bezero edo bezero-taldeentzako negoziazio-zorroan sartu ez diren arriskuak ez ditzatela 2006/48/EE Zuzentarauaren 111.etik 117.era arteko artikuluetan ezarritako mugak gainditu; horiek, zuzentarau horretan zehazten den bezala, fondo propioekiko kalkulatu, soberakin osoa negoziazio-zorroari dagokiolarik;

b) entitateak, 2006/48/EE Zuzentarauaren 111. artikuluen 1. eta 2. paragrafoetan ezarritako mugekiko kapital-eskakizun osagarri bat bete dezala, zuzentarau horretako VI. eranskinarekin bat eginez kalkulatu dena;

c) soberakin hori sortzen denetik 10 egun edo gutxiago igaro badira, elkarrekin harremanak dituzten bezero-taldearentzako edo bezeroarentzako negoziazio-zorroaren arriskuak ez dezala entitatearen fondo propioen % 500a gainditu;

d) 10 egun baino gehiago iraun duten soberakin guztien baturak ez dezala entitatearen fondo propioen % 600a gainditu; eta

e) entitateek hiru hilero jakinaraz diezazkietela agintari eskudunei aurreko hiru hilabeteetan 2006/48/EE Zuzentarauaren 111. artikuluen 1. eta 2. paragrafoek ezarritako mugak gainditu direneko kasu guztiak.

e) idatz-zatiari dagokionez, mugak gainditu diren kasu bakoitzaren soberakin-zenbatekoa eta bezeroaren izena jakinarazi beharko dira.

32. Artikulua

1. 2006/48/EE Zuzentarauaren 111. artikuluen 1. eta 2. paragrafoetan ezarritako mugak gainditu dituzten arriskuak 10 egunez baino gehiago iraun duten kasuetan entitateei ezarritako betekizun osagarriak, entitateek nahita saihestu ditzaten (delako arriskuak aldi baterako beste enpresa batzuetara transferituz, talde berekoak izanda zein ez, eta/edo 10 eguneko epean arriskua eteteko eta arrisku berri bat sortzeko helburua duten transakzio artifizialak

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

baliatuz) galarazteko prozedurak zehaztuko dituzte agintari eskudunek.

Agintari eskudunek prozedura horien berri emango diete Kontseiluari eta Batzordeari.

Lehen lerrokadan aipatutako efektua duen edozein transferentzia agintari eskudunei berehala jakinaraz dakien bermatuko duten sistemak izango dituzte entitateek.

2. Agintari eskudunek entitateei baimendu ahal izango diete, 30. artikuluko 2. eta 3. paragrafoek eta 31. artikuluko ezartzen dituen betebeharrak betetzean 13. artikulua 2. paragrafoak eskaintzen duen fondo propioen definizio alternatiboa erabiltzea, betiere, entitate interesdunei beren negoziazio-zorrotik eratorriak ez diren arriskuekiko 2006/48/EE Zuzentarauaren 110.etik 117.era arteko artikuluetan ezarritako betebeharrak guztiak betetzea eskatzen bazaie, zuzentarau horrek fondo propioei ematen dien definizioa erabiliz.

5. Atala

Posizioen balioespena informazio-helburuetarako

33. Artikulua

1. Negoziazio-zorroko posizio guztiak VII. eranskineko B zatian zehaztutako zuhurtziazko balorazio-arauen menpe egongo dira. Arau horiei jarraiki, entitateek negoziazio-zorroko posizio guztiak aplikatutako balioak merkatuko egungo balioa islatzen duela bermatuko beharko dute. Balio horrek zehaztasun maila egokia izan beharko du ondoko hauek kontuan izanda: negoziazio-zorroko posizioen izaera dinamikoa, zuhurtziazko sendotasun-eskakizunak eta negoziazio-zorroaren posizioekiko kapital-eskakizunen helburu eta eragiketarako egiteko era.

2. Negoziazio-zorroko posizioak, gutxienez, egunean behin baloratuko dira.

3. Merkatuko prezioak berehala eskuratzerik ez balego agintari eskudunek 1. eta 2. paragrafoetan aurreikusitakoa ez aplikatzeko aukera izango dute, eta entitateei bestelako balorazio-metodoak aplikatzeko aginduko diete, betiere, balorazio-metodoak behar bezain zurrak badira eta agintari eskudunek onartu badituzte.

6. Atala

Arriskuaren kudeaketa eta kapitalaren ebaluazioa

34. Artikulua

Agintari eskudunek inbertsio-enpresa bakoitzari eskatuko diote, 2004/39/EE Zuzentarauaren 13. artikulua betekizunak betetzeaz gain, 2006/48/EE Zuzentarauaren 22. eta 123. artikuluetako betekizunak bete ditzala, zuzentarau horretako 68.etik

73.era arteko artikuluen aplikazio-mailei buruzko xedapenei kalte egin gabe.

7. Atala

Informazio-betekizunak

35. Artikulua

1. Estatu kideek inbertsio-enpresei eta kreditu-entitateei eskatuko diete jatorrizko estatu kideko agintari eskudunei zuzentarau honek biltzen dituen arauak betetzen dituzten erabakitze beharrezkoa den informazio guztia bidaltzea. Estatu kideek, halaber, uneoro zaindu beharko dute, xedapen horiek betetzen diren baieztatu ahal izateko entitateen barne-kontrolerako mekanismoak, administrazio- eta kontabilitate-prozedurak badaudela.

2. Inbertsio-enpresek agintari eskudunei, azken horiek zehaztutako eran emango diete informazioa ondoko maiztasunak errespetatuz: 9. artikuluko enpresek hilean behin gutxienez, 5. artikuluko 1. paragrafoko enpresek hiru hilean behin gutxienez, eta 5. artikuluko 3. paragrafoko enpresek sei hilean behin gutxienez.

3. 2. paragrafoan xedatutakoaren aurka jarri gabe, 5. artikulua 1. paragrafoan eta 9. artikuluan aipatutako inbertsio-enpresei eskatu beharko zaie sei hilean behin bakarrik eman dezatela oinarri kontsolidatuko edo azpikontsolidatutako informazioa.

4. Kreditu-entitateek agintari eskudunei azken horiek zehaztutako eran eman beharko diete informazioa, 2006/48/EE Zuzentaruak ezartzen duen maiztasun berarekin.

5. Agintari eskudunek entitateei eskatuko diete berehala jakinaraz ditzatela berrerosteko akordioetan edo alderantzizko berrerosteko akordioetan edo baloreak zein lehengaiak mailegatzeko eragiketetan, edo baloreak zein lehengaiak maileguan hartzeko eragiketetan, haien aurkako parteek betebeharrak betetzen ez dituzten kasu guztiak.

VI. KAPITULUA

1. Atala

Agintari eskudunak

36. Artikulua

1. Estatu kideek zuzentarau honetan aurreikusitako funtzioak betetzeko agintari eskudunak izendatuko dituzte. Horren berri emango diote Batzordeari, eta funtzio-banaketa badago, hala adieraziko dute.

2. Agintari eskudunak izango dira: agintari publikoak; edo nazioko legediak zein agintari publikoek dagokion estatu kideko indarreko ikuskapen-sistemaren parte gisa ofizialki aitortutako agintariak.

- d) finantza-merkatuen eboluzioa kontuan hartzeko, 20. artikuluko 2. eta 3. paragrafoetan agertzen diren inbertsio-enpresen kategoriak egokitzea;
- e) Zuzentarau hau modu bateratuan aplikatu dadila bermatzeko, 21. artikuluan agertzen diren betekizunak argitzea;
- f) terminologia eta definizioen testuingurua egokitzea, entitateekin lotutako geroko ekintzei eta lotutako gaiari dagokienez;
- g) I.tik VII.era arteko eranskinetan agertzen diren arau teknikoak egokitzea finantza-merkatuen eboluzioaren, arriskuaren neurketaren, kontabilitate-arauen, erkidegoko legediak eskatzen duenaren, edo ikuskapen-praktiken elkarganatzearekin lotutako faktoreen ondorioz, edo
- h) 2004/39/EE Zuzentarauaren 65. artikuluan 3. paragrafoak aipatzen duen berrikuspenaren emaitzak kontuan izateko beharrezkoak diren egokitzapen teknikoak.
2. Zehaztuko diren betearazpen-neurri horiek ezingo dituzte zuzentarau honetako funtsezko xedapenak aldatu.

42. Artikulua

1. Batzordeak Europako Banku Komitearen laguntza izango du, Batzordearen 2003ko azaroaren 5eko ⁽¹⁾ 2004/10/EE Erabakiak sortua, 2 (aurrerantzean «KOMITEA»)
2. Paragrafo hau aipatzen den kasuetan, 1999/468/EE Erabakiaren 5. eta 7. artikulua izango dira aplikatzekoak, 8. artikuluan xedaturikoa kontuan hartuz.
- 1999/468/EE Erabakiaren 5. artikuluan 6. paragrafoan aipatutako epea hiru hilabetekoa izango da.
3. Honako zuzentarau hau onartu eta 2 urteko epea igaro ostean hartutako betearazpen-neurriei kalterik egin gabe, eta gehienez ere, 2008ko apirilaren lehen, 2. paragrafoarekin bat eginez, arau teknikoak, zuzenketak eta erabakiak hartzea eskatzen duten zuzentarau honetako xedapenen aplikazioa eten egin beharko da. Europako Parlamentuak eta Kontseiluak, Batzordeak eskatuta eta Tratatuaren 251. artikuluan ezarritako prozedurari jarraiki, aipatutako xedapenak berriro ahal izango dituzte eta, horretarako, paragrafo honetan aipatutako epea amaitu aurretik edo, lehenagokoa balitz, aipatutako data heldu aurretik berrikusiko dituzte.
4. Komiteak bere barne-erregelamendua onartuko du.

3. Atala

¹ L 3 EO, 2004.1.7, 36. or.

Xedapen iragankorrak

43. Artikulua

Zuzentarau honetako 2. artikuluan eta V. kapituluaren 2. eta 3. atalen arabera, 2006/48/EE Zuzentarauaren 152. artikuluko 1.etik 7.era arteko paragrafoak aplikatuko zaizkie inbertsio-enpresei arriskuen arabera haztatutako arriskuen zenbatekoak kalkulatzeko zuzentarau honen II. eranskinaren ondorioetarako, 2006/48/EE Zuzentarauaren 84.etik 89.era arteko artikuluen arabera, edo arrisku operatiborako kapital-eskakizunak kalkulatzeko Zuzentarau horretako 105. artikulua azaltzen duen Neurketa Metodo Aurreratua erabiliz.

44. Artikulua

2012ko abenduaren 31ra arte, estatu kideek «negoziazioa eta salmentak» negozio-lineari % 15a aplikatu ahal izango diote inbertsio-enpresetan, betiere, negozio-linea horren adierazle egokia zuzentarau honetako 20. artikuluari, eta 2006/48/EE Zuzentarauaren X. eranskinaren, 2. zatia 1.etik 4.era arteko puntuei jarraiki kalkulatzeko negozio-linea guztien adierazleen (adierazle egokien) guztizkoaren % 50a baino gutxiago denean.

45. Artikulua

1. Agintari eskudunek inbertsio-enpresei 2006/48/EE Zuzentarauaren 111. artikuluan ezarritako arrisku handiei buruzko mugak gaintzeko baimena eman diezaiekete. Inbertsio-enpresek muga horiek gaintzen dituzten kapital-eskakizunen kalkuluan izan daitezkeen gaitzirik ez dituzte sartu behar izango, zuzentarau horretako 75. artikuluan b) idatz-zatiak xedatu bezala. Diskrezio-ahalmen hori egikaritu ahal izango da 2010eko abenduaren 31ra arte edo arrisku handien tratamenduari buruzko edozein aldaketa indarrean sartzeko egunera arte, lehenagokoa balitz, 2006/48/EE Zuzentarauaren 119. artikuluari jarraiki. Eskumen hori egikaritu ahal izateko ondoko a)-tik d)-ra bitarteko idatz-zatietan zehaztutako baldintzak bete behar dira:

- a) inbertsio-enpresak inbertsio-zerbitzuak ematen ditu edo 2004/39/EE Zuzentaruoko I. eranskineko C ataleko 5., 6., 7., 9. eta 10. puntuetan zerrendatutako finantza-tresnekin lotutako inbertsio-jarduerak gauzatu dituzte;
- b) inbertsio-enpresak ez dituzte inbertsio-zerbitzu horiek ematen edo ez du bezero minoristentzako zein horien izenean halako jarduerarik gauzatu;
- c) paragrafo honen sarrerak aipatzen duen mugen gaintzeak a) idatz-zatian zerrendatutako finantza-tresnak diren kontratuetatik eratorritako eta Finantza-tresnen Merkaturari buruzko 2004/39/EE Zuzentarauaren I. eranskinaren C ataleko 10. puntuarekin bat eginez lehengaiei edo azpikoei buruzkoak diren arriskuekin lotuta sortzen dira, eta 2006/48/EE Zuzentarauaren III. eta IV. eranskinen arabera kalkulatu dira, edo

lehengaien zein jaulkipen-eskubideen banaketarekin zerikusia duten kontratuekin lotuta; eta

- d) inbertsio-enpresak kudeaketarako estrategia dokumentatu bat du, bereziki, arriskuaren kontzentrazioak ekar ditzakeen arriskuak kontrolatu eta mugatzeko. Inbertsio-enpresak estrategia horren eta horretan gertatutako aldaketa ororen berri eman beharko die luzatu gabe agintari eskudunei. Inbertsio-enpresak bere mailegu-hartzaileen kreditu-gaitasuna etengabe ikuskatzea bermatuko duten neurriak hartu beharko ditu, gaitasun horrek kontzentrazio-arriskuarengan duen eraginaren arabera. Neurri horiek kreditu-gaitasunaren edonolako narriaduraren aurrean behar bezala eta azkartasun nahikoaz erantzuteko aukera eman beharko diote inbertsio-enpresari.

2. Inbertsio-enpresak 1. paragrafoaren d) idatz-zatian aipatutako strategiaren arabera ezarritako barne-mugak gainditzen dituenean, mugak gainditze horren hedadura eta izaeraren berri eta aurkako parteen berri eman beharko dio agintari eskudunari.

46. Artikulua

1. artikuluko 20. paragrafoan xedatutakoa gorabehera, 2011ko abenduaren 31ra arte agintari eskudunek, kasuan kasu, 2006/48/EE Zuzentarauaren 75. artikuluko d) idatz-zatian aurreikusitako kapital-eskakizunak ez aplikatzea erabaki dezakete, betiere, 20. artikuluko 2. eta 3. idatz-zatiak aplikagarri ez zaizkien inbertsio-enpresei dagokienez, eta horien negozioaziorroko posizioen guztizkoak 50 milioi EUR gainditzen ez baditu, eta ekitaldi bakoitzeko dituen langileen batez bestekoak 100 langile gainditzen ez baditu.

Xedapen horien orde, jarraian aipatzen diren zenbateko baxuenen parekoak izango dira kapital-eskakizunak:

- a) 2006/48/EE Zuzentarauaren 75. artikuluko d) idatz-zatitik eratorritako kapital-eskakizunak; eta
- b) ondoko zenbatekoen arteko altuenaren 12/88:
- i) 2006/48/EE Zuzentarauaren 75. artikuluko a)tik c)ra bitarteko idatz-zatietan aurreikusitako kapital-eskakizunen batura; eta
- ii) Zuzentarau honetako 21. artikuluan aurreikusitako zenbatekoa, 20. artikuluan 5. paragrafoari kalte egin gabe.

Bigarren lerrokadaren b) idatz-zatia aplikatzekoa bada, urtero gutxienez, gehikuntza osagarri bat aplikatuko da.

Salbuespen hau aplikatzeak ez du inbertsio-enpresa baten kapital-eskakizunen maila orokorraren murrizketa ekarriko, 2006ko abenduaren 31ko eskakizunei dagokionez, betiere, murrizketa hori

inbertsio-enpresaren jarduera-bolumenaren zuhurtziazko gutxitze batek justifikatzen ez badu.

47. Artikulua

2009ko abenduaren 31ra arte edo agintari eskudun bakoitzak zehaztuko duen data hurbilago batean, V. eranskinaren 1. puntuarekin bat eginez, 2007ko urtarrilaren 1a baino lehenago arrisku espezifikoaren ereduaren aitortpena jaso duten entitateek, 93/6/EEE Zuzentarauaren V. eranskineko 4. eta 8. puntuak 2007ko urtarrilaren 1a baino lehenago zeuden eran tratatu ahal izango dituzte, aipatutako aitortpen horri dagokionez.

48. Artikulua

1. Zuzentarau honetako eta 2006/48/EE Zuzentarauko kapital-eskakizunei buruzko xedapenak ez zaizkio aplikatuko jarduera nagusizat 2004/39/EE Zuzentarauko I. eranskineko C ataleko 5., 6., 7., 9. eta 10. puntuetan zerrendatutako finantza-tresnekin lotutako jarduerak burutzea edo inbertsio-zerbitzuak ematea duten inbertsio-enpresei eta 2006ko abenduaren 31n 93/22/EE 3 Zuzentaraua⁽¹⁾, aplikagarri ez zaien horiei. 2010eko abenduaren 31ra arte edo, lehenagokoa balitz, 2. eta 3. paragrafoekin bat eginez sortutako aldaketak indarrean sartu arte baliatu ahal izango da salbuespen hori.²

2. 2004/39/EE Zuzentarauaren 65. artikuluan 3. paragrafoan eskatutako berrikuspenaren parte gisa, Batzordeak, kontsulta publikoak oinarri direla eta agintari eskudunek izandako eztabaiden ezagun izanik, Parlamentuari eta Kontseiluari ondoko hauen berri emango die:

- a) ondoko jardueretan bakarrik aritzen diren inbertsio-enpresen zuhurtziazko ikuskapenerako erregimen egokia: lehengaien gaineko eratorrieekin edo 2004/39/EE Zuzentarauaren I. eranskineko C ataleko 5., 6., 7., 9. eta 10. puntuetan aipatutakoetatik eratorrietako kontratuekin lotutako zerbitzu-hornidura edo inbertsio-jarduerak.
- b) 2004/39/EE Zuzentaraua aldatzearen egokitasuna inbertsio-enpresen kategoria berri bat sortzeko asmoz; kategoria berri horretako inbertsio-enpresen jarduera nagusiak 2004/39/EE Zuzentarauaren I. eranskineko C ataleko 5., 6., 7., 9. eta 10. puntuetan zerrendatutako finantza-tresnekin lotutako zerbitzuak edo inbertsio-jarduerak lirateke, betiere, energia-hornikuntzari dagokionez (elekttrizitatea, ikatza, gasa eta petrolioia barne).

¹ Kontseiluaren 93/22/EEE Zuzentaraua, 1993ko maiatzaren 10ekoa, balore negoziagarrien eremuko inbertsio-zerbitzuei buruzkoa (L 141 EO, 1993.6.11, 27. or). Zuzentarau honen azken aldaketa 2002/87/EE Zuzentaraua da.

² Kontseiluaren 93/22/EEE Zuzentaraua, 1993ko maiatzaren 10ekoa, balore negoziagarrien eremuko inbertsio-zerbitzuei buruzkoa (L 141 EO, 1993.6.11, 27. or). Zuzentarau honen azken aldaketa 2002/87/EE Zuzentaraua da.

3. 1. paragrafoak aipatzen duen txostena oinarri hartuta, Batzordeak zuzentarau honetarako eta 2006/48/EE Zuzentarauerako zuzenketa-proposamenak egin ditzake.

4. Atala

Azken xedapenak

49. Artikulua

1. Estatu kideek, beranduen 2006ko abenduaren 31rako, 2., 3., 11., 13., 17., 18., 19., 20., 22., 23., 24., 25., 29., 30., 33., 34., 35., 37., 39., 40., 41., 43., 44., 50. artikulua eta I., II., III., V. eta VII. eranskinak betearazteko beharrezkoak diren lege-xedapen, erregelamenduzko xedapen eta administrazio-xedapenak onartu eta argitaratuko dituzte. Batzordeari xedapen horien testuak ezagutaraziko dizkiote berehala, bai eta xedapen horien eta Zuzentarau honen korrespondentzien taula bat ere.

Estatuek xedapen horiek 2007ko urtarrilaren letik aurrera aplikatuko dituzte.

Estatu kideek xedapen horiek onartzen dituztenean, xedapenok zuzentarau honi egingo diote erreferentzia edo erreferentzia hori ere agertuko da xedapena ofizialki argitaratzean. Estatu kideek, halaber, adierazi egingo dute egindako indarreko lege-xedapenetan, erregelamenduzko xedapenetan eta administrazio-xedapenetan zuzentarau honek indargabetzen dituen zuzentarauei buruzko erreferentziak, zuzentarau honi egindakoak izango direla.

2. Estatu kideek Batzordeari jakinarazi beharko diote zuzentarau honek araututako eremuan estatu barruko zuzenbideko xedapen nagusiak biltzen dituen testua.

50. Artikulua

1. 2006/48/EE Zuzentarauko 152. artikuluko 4.etik 8.era arteko paragrafoak mutatis mutandi aplikatuko dira honako zuzentarau honi dagokionez, betiere, 2006/48/EE Zuzentarauko 152. artikuluko 8. paragrafoan aipatutako zehaztapena erabiltzen denean aplikagarri izango diren ondorengo xedapenak betetzen badira:

- a) Zuzentarau honen II. eranskinaren 7. puntuan 2006/48/EE Zuzentarauari egindako erreferentziak agertzen dira, eta horiek 2000/12/EE Zuzentarauari 2007ko urtarrilaren 1aren aurretiko egoeran egindako erreferentziak izango dira; eta
- b) Zuzentarau honetako II. eranskinaren 4. puntua 2007ko urtarrilaren 1a baino lehenagoko egoeran aplikatuko da.

2. 2006/48/EE Zuzentarauren 157. artikulua 3. paragrafoa mutatis mutandi aplikatuko da zuzentarau honen 18. eta 20. artikuluen ondorioetarako.

51. Artikulua

Batzordeak, beranduen 2011ko urtarrilaren 1ean balioetsiko du zuzentarau honen aplikazioa, eta Europako Parlamentuari eta Kontseiluari dagozkion aldaketen proposamenak bilduko dituen txosten bat aurkeztuko die.

52. Artikulua

VIII. eranskinaren A partean agertzen diren zuzentarauek eraldatutako 93/6/EE Zuzentaraia indargabetzen da, VIII. Eranskinaren B zatian bildu diren zuzentarauek Zuzenbide nazionalera aldatzeko epeei buruz estatu kideen betebeharrei kalte egin gabe.

Indargabetutako Zuzentarauei buruzko erreferentziak zuzentarau honi egindako erreferentziak izango dira, IX. eranskineko korrespondentzia-taulari jarraiki.

53. Artikulua

Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean argitaratzen denetik hogeit egunera jarriko da indarrean zuzentarau hau.

54. Artikulua

Estatu kideak dira zuzentarau honen hartzaileak.

Estrasburgon egina, 2006ko ekainaren 14an.

Europako Parlamentuaren izenean,
Presidentea
J. BORRELL FONTELLES

Kontseiluaren izenean,
Presidentea
H. WINKLER

